

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

691

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 21ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailaren ikastetxe pribatuek eta mendekoak ez diren ikastetxe publikoek ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko prozedurak eta epeak jakitera ematekoa.

Hasierako Lanbide Heziketaren helburuetako bat da ikasleak lanbide-eremu jakin batean jarduteko prestatzea; alde batetik, haien garapen pertsonalean laguntzeko, eta bestetik, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko sektoreen kualifikazio-premiei erantzuteko.

Urte hauetako krisi ekonomikoaren testuinguruan, Europar Batasuneko herrialdeak hainbat ekintza gauzatzen ari dira, ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketaren bidez gazteen langabezia-tasa handiak arintzeko neurriak sustatzeko, eta gazteen lanbide-kualifikazioa eta espezializazioa bultzatzeko, ikastetxeko irakatsi eta ikasteko prozesua eta enpresan lan egitea eta ikastea uztartzearen bitartez.

Ondorio horietarako, Langileen Estatutuaren testu bateginak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 11.2 artikuluan arautzen du prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua.

Horrez gainera, azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuak prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua garatzen du, eta lanbide-heziketa dualaren oinarrizko alderdiak arautzen ditu.

Halaber, 2012ko urriaren 3ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak batera emanak, lanbide-heziketako programa bat definitzen du, gazteek ikas-ekinezko erregimenean lanbide-gaitasunak eskuratzea helburu duena, ikastetxeetako prestakuntza eta enpresan lanpostu bat betetzea txandakatzearen bidez.

Baterako Agindu horren 15. artikuluan ezartzen dira Lanbide Heziketako tituluei lotutako prestakuntza-proiektuei dagozkien eskabideak aurkezteko baldintzak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako tituluei dagokien curriculuma ezartzeko Dekretuen bigarren xedapen gehigarriak adierazten du Lanbide Heziketako Sailburuordetzak baimena eman ahal izango diela Dekretuetan ezarritako iraupena ez duten proiektuei, baldin eta ikasturte bakoitzeko moduluen banaketa aldatzen ez bada, eta titulua sortzeko Errege Dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

Amaitzeko, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak, Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak, adierazten du Lanbide Heziketako Sailburuordetzari dagokiola ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxeetan Hasierako Lanbide Heziketa programatzea eta inplementatzea.

Horren ondorioz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da erdi- eta goi-mailako lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ikastetxe pribatuek eta mendekoak ez diren ikastetxe publikoek ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko prozedurak eta epeak jakitera ematea.

2. artikulua.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programaren helburua eta aplikazio-eremua.

1.– Programaren helburua da gazteei Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko aukera ematea, ikastetxearen eta enpresaren artean partekatuta garatzen den ikaskuntza-prozesuaren bidez.

2.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programa da lanbide-heziketako teknikari edo goi-mailako teknikari titulu bat lortzeko ikasketetan matrikulatuta dauden gazteak dituzten ikastetxeentzako programa, ikasleek ikastetxean eta enpresan txandaka ikastea bideratuko duten proiektuak aurkez ditzaten.

3. artikulua.– Programaren modalitateak.

Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-programa dualek prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren modalitatea izango dute oinarri.

4. artikulua.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programaren ezaugarri orokorrak

1.– Programari dagokion prestakuntza-jarduera izango da, gutxienez, erdi- edo goi-mailako lanbide-heziketako titulu bat lortzeko beharrezkoa dena, prestakuntza osagarria ere sartzeko aukeraren kaltetan izan gabe, bai ikasleen beharrei erantzuteko, bai lan-kontratua egingo duen enpresaren espezializazio-premia zehatzei edo enpresari dagokion produkzio-sektore jakin baten beharrei erantzuteko.

2.– Bermatu beharko da programaren guztizko iraupenak bideratuko duela ikasleek lortzea, gutxienez, tituluko lanbide-modulu-tako ikaskuntza-emaitzak, bai eta enpresarekin adostutako espezializazioko prestakuntzaren arloak.

3.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala ikastetxean eta enpresen baterako parte-hartzearen bidez garatuko da, eta enpresek ikastetxean eskura jar ditzakete lanbide-modulu edo prestakuntza-modulu zehatz batzuk erabat edo partzialki emateko guneak, instalazioak edo adituak.

4.– Ikastetxean, dagokion araudian ezarritako espezialitate edo titulazioetako irakasleek emango dituzte prestakuntza-jarduerak. Enpresak guneak, instalazioak eta langile adituak jarri ahal izango ditu bertan emango den prestakuntzarako.

5.– Ikasleek enpresan egingo duten lanak lotura estua izan behar du heziketa-zikloko lanbide-profilarekin eta programatutako espezializazioekin. Horrenbestez, produkzio-emaitza lortzeaz gainera, enpresan egindako lan horiek ikaskuntza bideratu behar dute, eta, azken finean, titulu

luari dagozkion gaitasunak, espezializazioari dagozkionak, eta beste gaitasun pertsonal eta sozial batzuk eskuratzea bideratu behar dute.

6.– Ikastetxeko irakasteko eta ikasteko jarduerak txandakatzearen arabera egokitu beharko dira, enpresako eta ikastetxeko askotariko ikaskuntzak egoki integratzea bideratzeko.

7.– Ikas-ekinezko erregimeneko irakasteko eta ikasteko prozesuetan ezinbestekoa da ikastetxeko ohiko prestakuntzan ez bezalako jarraipena. Ikastetxeak eta enpresak partekatutako tutoretzen helburua da ikasleari prestakuntza-ibilbidean laguntzea. Horretarako, ikastetxeko tutore bat izendatuko da, ikasleari eta enpresari laguntzeko, lanbide-esperientziaren eta programaren eta dagokion prestakuntza-ibilbidearen arteko loturari euste aldera. Bestalde, enpresako tutoreak funtsezko zeregina du ikaslearen ikaskuntzaren helburuak antolatzeko eta definitzeko, bai eta ikastetxeko tutorearekin eta ikaslearekin batera prestakuntza bideratzeko, ebaluatzeko eta berriro diseinatzeko ere. Ikasleak, enpresan lanean hasi aurretik, prestakuntza nahikoa jaso beharko du, enpresako prestakuntza segurtasunez eta eraginkortasunez garatuko dela bermatzeko.

5. artikulua.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako programaren ezaugarri bereziak.

1.– Programan parte hartuko duten ikasleek lotura izango dute, alde batetik, ikastetxearekin, heziketa-ziklo batean matrikulatuta egongo baitira, eta bestetik, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako lan-harremana izango dute enpresa batekin.

2.– Programan parte hartuko duten ikasleen lan-jarduera oinarritzen da Langileen Estatutuaren testu bateginak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 11.2 artikuluan araututako prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan. Lan-eskubide osoak izango dituzte, bai eta gizarte-babesari dagozkionak ere. Kontratu hori urtebetetik hiru urtera bitartekoa izan daiteke, eta haren amaieran egingo da sinatzen duen ikasleak eskuratutako lorpenen ebaluazioa.

3.– Lan-kontratuari erantsitako dokumentu batean adieraziko dira ikaslearen eta enpresaren identifikazio-datuak, egutegiak, lanaldiak, eta ikastetxean eta enpresan bete beharreko ordutegia, 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduan emandako III. eranskinaren ereduaren arabera.

4.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako programa batean parte hartzen duten ikasleak Lantokiko Prestakuntza modulua egitetik salbuetsita geratuko dira, erabat edo partzialki. Erabat salbuetsita geratzeko, kontratu-aldia urtebetekoa izan beharko da gutxienez. Proiektuari dagokion modulua, halakorik balego, enpresako lanaren testuinguruan garatu ahal izango da.

6. artikulua.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako proiektuek bete beharreko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduko artikuluetan enpresentzat eta ikastetxeentzat ezarritako baldintza eta betebeharez gainera, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Programa honetan parte hartzeko eskaera egin dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailaren ikastetxe pribatuek eta mendekoak ez diren ikastetxe publikoek batean Lanbide Heziketako zikloren batean matrikulatuta dauden ikasleak, kontratua sinatzeko unean 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago izanez gero.

b) Enpresek Gizarte Segurantzako enpresa-kuoten hobariak eskuratu ahal izateko, parte hartzen duten ikasleek bete beharko dituzte prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua arautzen duen

lan-araudian ezarritako baldintzak, bai eta dagokion kasuan aplikatu beharreko gainerako araudiak ere. Zehazki, abenduaren 29ko 43/2006 Legearen 6. artikuluan kanpoan utzitako kasuak kontuan hartu beharko dira.

c) Lehen aipatutako 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduan adierazitakoari jarraituz, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratazio-modalitate honetan enpresentzat ezarritako balizko diru-laguntzak jasotzeko ezinbestekoa da proiektuan parte hartzen duten ikasleak, kontratua sinatu aurretik, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailleen artean inskribatuta egotea.

d) Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako programen kasuan, 2012ko urriaren 3ko Aginduaren 16. artikuluan azaldutako diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, produkzio-zentroak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egon behar dute, aipatu Aginduaren 3. artikuluan adierazitakoari jarraituz. Dena dela, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak baimendu ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoan lantokirik ez duten enpresetan ikas-ekinezko erregimenean lan egiteko proiektuak, betiere abenduaren 26ko ESS/2518/2013 Aginduaren 6. artikuluko 1. puntuan adierazitakoa errespetatuz.

e) Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-programa garatzeko, ikastetxe eskatzailak bermatu behar du ikastetxeko tutore batek eta enpresako tutore batek parte hartu eta jarraipena egingo dutela. Halaber, modulu guztiek irakasle arduradun bat izango dute, eta haren eginkizuna izango da, ikasleen prestakuntzaren eta aurrerapenen jarraipena egitea, bai eta haien ebaluazioa ere, betiere ikastetxeko tutoreak ikuskatuta.

2.– Ikastetxeari dagokio proiektuetan proposatutako ikasleek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

7. artikulua.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako proiektuen ezaugarriak.

1.– Orokorrean, proiektuek kontuan hartuko dute heziketa-zikloaren lehenengo ikasturtea ikastetxean egitea, eta bigarren ikasturtea, berriz, ikastetxean eta enpresan egindako txandakako ikas-ekinezko prestakuntza izatea. Halaber, aurkeztu ahal izango dira txandakako aldiaren iraupen luzeagoa proposatzen duten proiektuak, enpresa edo produkzio-sektore jakin batzuk eskatutako espezializazioarekin lotutako prestakuntza-alderdiak barnean hartu ahal izango dituztenak. Txandakako aldiaren urtebetetik gorako iraupena proposatzen duten proiektu horiek Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ezarritako eta baimendutako ereduaren arabekoak izan beharko dute.

2.– Ikastetxean egindako prestakuntzaren iraupenak errespetatu beharko ditu, gutxienez, dagokion titulua sortzeko Errege Dekretuan modulu bakoitzari esleitutako orduak, eta ezingo ditu gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko curriculuma ezartzeko Dekretuan modulu bakoitzarentzat ezarritako ordu-kopuruak.

3.– Normalean, ikasleek enpresan eta ikastetxean egindako aldiak bateratu behar dituzte. Hala ere, une jakin batzuetan, produkzio-jarduerak edo eskola-egutegiak eskatuta, enpresan soilik edo ikastetxean soilik aldi bat egitea onartu ahal izango da, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritako mugak kontuan hartuta.

4.– Prestakuntza-egonaldiak egin ahal izango dira, bai zentro teknologikoetan, bai I+G+B zentroetan, enpresak koordinatuta eta haren mende, sinatutako kontratuan oinarrituta. Prestakuntza hori ikastetxeko irakasleek edo enpresako zein zentro teknologikoko profesional egokiek eman ahal izango dute.

5.– Ebazpen honen babesean garatuko diren ikas-ekinezko prestakuntza dualeko proiektuak normalean amaitu beharko dute ikasturteko eskola-egutegia arautzen duen araudian horretarako ezarritako egunetan, eta ez beranduago.

6.– Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-proiektu bakoitzean, ikastetxe eskatzaileak bermatu behar du ikastetxeko tutore batek eta enpresako tutore batek parte hartu eta jarraipena egingo dutela. Halaber, modulu guztiek irakasle arduradun bat izango dute, eta haren eginkizuna izango da, ikastetxeko tutoreak ikuskatuta, ikasleen prestakuntzaren eta aurrerapenen jarraipena egitea, bai eta haien ebaluazioa ere.

7.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan oinarritutako ikas-ekinezko lanbide-heziketa dualeko proiektuek kontuan hartuko dituzte kontratua arautzen duen Langileen Estatutuaren testu bateginak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 11.2 artikuluan haien ezaugarriak ezarritako gutxienezko eta gehieneko iraupenak. Ikastetxean eta enpresan egingo diren denboren banaketa izan beharko da arau horretan adierazitakoaren arabera, eta kontratuak kontuan hartu beharko du enpresan legez ezarritako urteko lanaldiaren ordu-kopurua.

8. artikulua.– Prestakuntza eta lana txandakatzeko proiektuak aurkeztea eta kudeatzea.

1.– Lanbide Heziketako ikastetxeek aurkeztu ahal izango dituzte ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza dualeko proiektuak, ikaslea matrikulatutako lanbide-heziketako tituluari dagozkion erreferentziazko okupazioan edo okupazioetan kontratatuzko gaitasuna duten enprekin lankidetzan. Proiektu horiek izan daitezke ikastetxeen ekimenez sortuak, edota enpresen ekimenez ikastetxeei proposatuak, abian jar ditzaten.

2.– Ikastetxeko arduradunak, eskaera egiteko prozesua hasi aurretik, egiaztatu beharko du enpresa laguntzaileak badituela behar diren bitarteko eta baliabideak, ikaskuntza egokia eta titulurako ezarritako ikaskuntza-emaitzekin lotura duena emateko. Hasieran, enpresarekin batera, bertan lan eginez lor daitezkeen eta lortu behar diren ikaskuntza-emaitzak identifikatu behar dira.

3.– Lanbide Heziketako ikastetxeak diseinatuko du ikas-ekinezko eredu hori aplikatzeko prestakuntza-programa, enpresarekin lankidetzan, zikloko lanbide-modulu bakoitzeko ikaskuntza-emaitzak eta ebaluazio-irizpideak erreferentziaz hartuta. Adieraziko dira bai ikastetxean bai enpresan edo bietan landuko diren zatiak. Programa horrek izan ditzake enpresak bere produkzio-prozesuetarako eskatutako berriazko edukiak.

4.– Ikastetxetako zuzendariak proiektuak aurkeztuko dituzte ebazpen honetan adierazitako epean eta moduan.

5.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza izango da ebazpen honekin lotutako jarduketak kudeatzeko organo arduraduna.

6.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak proiektua onartu ondoren, ikastetxeak kudeatuko du, enpresarekin batera; horrenbestez, lan-kontratua sinatuko da eta organismo eskudunetan aurkeztuko da.

7.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuen kasuan, ikastetxeak, enpresak eta parte hartuko duen ikasleak sinatuko duten akordioan prestakuntza-programaren oinarritzko ezaugarriak adieraziko dira, eskatutako beste datu batzuekin batera, eta, izapidetzeko garaian, akordio hori erantsiko zaio lan-kontratuari. Akordio hori jasoko da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduan emandako III. eranskinaren eredu baliatuta. Ikastetxeko zuzendariaren erantzukizuna izango da onartutako proiektuaren ezaugarriak aipatu akordioan eta lan-kontratuan zehatz-mehatz adieraztea. Lan-kon-

tratua eta III. eranskineko akordioa sinatu ostean, haren kopia bat bidali beharko da Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzara, 15 eguneko epean, proiektuaren espedientea osatzeko.

8.– Ikastetxeko zuzendariak Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari jakinaraziko dio, ahal bezain laster, proiektu bakoitza garatzeko onartutako baldintzak aldatuko dituen edozein gorabehera.

9.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuari dagozkion hasierako lanbide-heziketako jarduerako prestakuntza-ordu guztiak bermatze aldera, ikasleek ikas-ekinezko prestakuntza-proiektua amaitu ondoren soilik eskatu ahal izango dute lanbide-moduluak baliozkotzea.

9. artikulua.– Proiektuetan parte hartuko duten ikasleak hautatzea, haiei jakinaraztea eta adostasuna.

1.– Proiektu eta modalitate bakoitzeko ikasleak hautatuko dira horretarako alde aurretik ikastetxeak eta enpresak adostutako eta ikasleei jakinarazitako irizpide batzuen arabera. Irizpide horien artean lehentasuna izango dute eskola-kalifikazioek.

2.– Adin nagusiko ikasleek, edo legezko tutoreek, hala badagokie, parte hartzen duten proiektuei buruzko informazio eta orientazio egokia jasotzeko eskubidea izango dute. Zehazki, informazio horrek honako alderdi hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- a) Ikas-ekinezko lanbide-heziketa dualaren helburuak.
- b) Ikas-ekinezko jarduera egingo den enpresa, lanpostua, eta jarduera edo jarduerak.
- c) Jarduerak ikastetxean eta enpresan egiteko egutegia eta ordutegia.
- d) Enpresarekin egindako prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuan adierazitako xehetasunak.
- e) Derrigorrez bete beharreko enpresaren barne-arauak, eta ikastetxeak ezarritako bestelako koordinazio-arau batzuk.

3.– Ezarritako egutegia, lanaldia eta ordutegia betetzeko konpromisoa hartu beharko dute adin nagusiko ikasleek, edo legezko tutoreek, hala badagokie. Halaber, zorrotz beteko dituzte enpresaren barne-arauak, bai eta enpresak izendatutako arduradunek emandako jarraibideak ere.

10. artikulua.– Programatik kanpora geratzea edo nahita uztea.

1.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programan jarraitu ahal izateko, ikasleek gainditu beharko dituzte dagokion heziketa-zikloko lehenengo mailako lanbide-modulu guztiak. Hala eta guztiz, baldintza hori bete gabe ere jarraitu ahal izango dute, behar bezala arazoitutako zioak adierazi baldin badituzte, eta Heziketa eta Ikaskuntza zuzendariak horretarako baimena emanaz gero.

2.– Ikasleak programatik kanpo utzi ahal izango dira, behin eta berriro eta justifikaziorik gabe bertaratu ez badira edo berandu agertu badira, enpresako arauak urratu badituzte, edo ez badute programa aprobeztatzen.

3.– Halaber, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuen kasuan, harremana amaituko da azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako edozein kausa gertatuz gero.

4.– Ikaslea programatik kanpo geratu bada edo bere borondatez utzi badu, talde arrunt batean sartuko da ikasketak jarraitzeko, hala nahi izanez gero.

11. artikulua.– Eskabideak eta proiektuak aurkeztea.

1.– Ikas-ekinezko lanbide-heziketa dualeko programan parte hartu nahi duten ikastetxeetako zuzendariak eskabidea aurkeztu beharko dute ebazpen honetan ezarritako epean. Eskabide horrek honako datu hauek hauek adieraziko ditu:

a) Ikastetxearen identifikazioa: kodea, izena, helbidea, herria edo hiria.

b) Heziketa-zikloaren identifikazioa: lanbide-arloa, heziketa-zikloa, maila.

c) Proposatutako enpresaren identifikazioa: IFZ, izena, lantokiaren helbidea.

d) Ikaslearen identifikazioa: NAN edo baliozko dokumentua egoiliar gisa, izen-abizenak, jaiotze-data.

e) Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren kasuan, sinatuko den kontratuaren urteko orduak, ikastetxean egin beharreko prestakuntza-orduak, enpresan egin beharreko guztizko prestakuntza-orduak, enpresan benetan egin beharreko guztizko lanorduak.

2.– Eskabidearekin batera, honako puntu hauek bilduko dituen proiektuari dagokion dokumentua aurkeztuko da:

a) Lanbide Heziketako tituluaren izena, dagokion lanbide-profila, eta hura osatzen duten modulu profesionalak eta gaitasun-unitateak.

b) Programan parte hartuko duten ikasleen identifikazioa, eta ikas-ekinezko prestakuntza-planak egingo diren enpresaren datuak.

c) Ikastetxeko eta enpresako tutoreen identifikazioa.

d) Enpresan beteko den lanpostua. Lanpostu hori nahitaez lotuta egongo da heziketa-zikloaren lanbide-profilari.

e) Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren guztizko ordu-kopurua, enpresari dagokion hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera, bai eta ikastetxeko prestakuntzarako, eta, hala badagokio, enpresako prestakuntzarako eta enpresan benetan lan egiteko aurreikusitako denborak.

f) Ikastetxeko prestakuntzarako, eta, hala badagokio, enpresako prestakuntzarako eta enpresan benetan lan egiteko egutegia eta urteko ordu-kopuruen banaketa.

g) Heziketa-zikloaren eremuan ikaslea helburu hartuta enpresarekin adostutako programazioa. Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-programa banakakoa da; horrenbestez, heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzean landutako ikasketa-emaitzak barnean hartu behar ditu. Programazio horretan zehaztuko da prestakuntza-plan zehatza, bai eta ikastetxean eta enpresan egingo diren jarduerak.

h) Enpresak proposatutako berariazko prestakuntzarako programazioa, egoki izanez gero.

i) Tutoreek ikasleari ikastetxean zein enpresan arreta emateko plana, bai eta bi tutoreen arteko koordinaziorako guneak eta saio horien aldizkakotasuna.

j) Ebaluaziorako adostutako prozedura, horretarako ikaskuntza-emaitzak eta kalifikazio-irizpideak erreferentziatzat hartuta.

k) Ikasleak edo enpresak proiektuan parte hartzeari uko egindako kasuetarako aurreikuspenak.

l) Ikasleak sinatutako idatzizko konpromisoa, proiektuaren zehaztapenak eta baldintzak ezagutzen eta onartzen dituela adierazten duena.

3.– Proiektu bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da, lanbide-heziketako titulu bat, ikasle bat, enpresa bat eta lanerako plan bat adierazita.

4.– Edozein arrazoigatik aldatzen badira aurkeztutako proiektuan adierazitako egoera edo datu batzuk, ikastetxeak horren arrazoiak jakinaraziko dizkio Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari, betiere lan-kontratua sinatu aurretik.

12. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

Entitate interesdunek prozedura honi dagozkion eskaera, kontsulta eta izapide guztiak bitarteko elektronikoen bitartez egin beharko dituzte.

Administrazio Elektronikoari buruzko 2012ko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeari buruzko Informatika eta Telekomunikazio zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean arautzen da izapidetze elektronikoa.

13. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epeak eta tokiak.

1.– Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-proiektuak aurkezteko epea hasiko da ebazpen hau argitaratutako egunaren biharamunean, eta 2014ko apirilaren 30ean amaituko da.

2.– Dokumentazioa aurkezteko moduari buruzko informazioa eta inprimaki normalizatuak eskura daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.net>), honako helbide honetan: <https://euskadi.net/baimena/2014/ikas-ekin/eu/>

3.– Eskaeraren osteko izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egingo dira, «nire kudeaketak» delakoan, honako helbide honetan: <https://euskadi.net/nirekudeaketak/>

4.– Ikastetxe eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

14. artikulua.– Eskabideen ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Aurkeztutako eskabideak onartuko dira edo ezezkoa emango zaie Lanbide Heziketako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

2.– Adierazitako ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie ikastetxeei 2014ko maiatzaren 30erako, eta argibide ondorioetarako baino ez da argitaratuko.

3.– Epe horretan berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsizat joko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

15. artikulua.– Programaren finantziazioa enpresa laguntzaileentzat, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren kasuan.

1.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzura bidaliko du prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren modalitatean onartutako proiektuen zerrenda, deialdi honen

eremuan egingo dituzten enpresek eska dezaketen diru-laguntzaren ondorioetarako, 2012ko urriaren 3ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.– Deialdi honen babesean kontratuak sinatzen dituzten eta dagozkien diru-laguntzak eskatu nahi dituzten enpresa laguntzaileek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatu beharko diote, eta 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduaren 16. artikuluan adierazitako prozedura jarraitu behar dute.

16. artikulua.– Ikasleen ebaluazioa eta programan jarraitzea.

1.– Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-proiektuak ikasturte akademiko bat baino gehiago hartzen badu, ikasleak lehenengo mailako modulu guztiak gaindituta izan behar ditu dagokion taldearen ebaluaziorako aurreikusitako unerako, bigarren maila ikas-ekinezko modalitatean egiten jarraitu ahal izateko, ebazpen honen 10. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

2.– Ikastetxean osorik egindako moduluetan, irakasleek ikasleak ebaluatuko dituzte, ikastetxeak aurkeztutako proiektuan aurreikusitako egunetan.

3.– Ikas-ekinezko erregimenean egindako moduluetan, ikasleak ebaluatzea irakasleen ardura da, enpresako tutorearen laguntzarekin, eta enpresan egindako jarduerak kontuan hartuta, lanbide-modulu bakoitzerako proiektuan adierazitako zehaztapenen arabera. Zeregin hori ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-programako tutoreak koordinatuko du.

4.– Ebaluazioa egiteko, proiektuari dagokion ikaskuntza-prozesuaren jarraipena egingo du modulu bakoitzeko irakasleak, ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza-programako tutoreak koordinatuta.

17. artikulua.– Programaren jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak egingo du onetsitako proiektuen jarraipena.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritzak prestakuntza-programen jarraipena egingo du, eta haien garapena gainbegiratu du, bai ikastetxeetan, bai enpresetan.

3.– Proiektuak amaitzean, Lanbide Heziketako ikastetxeek proiektu bakoitzari buruzko informazio-memoria egingo dute. Memoria horretan jasoko da proiektuari dagokion dokumentazioa, alderdi guztietan behar bezala osatua, bai eta ikasleak programazioaren arabera lortutako emaitzak ere.

4.– Halaber, memoria horretan jasoko dira ikastetxeko ikasleei buruzko datu estatistiko hauek: prestakuntza- eta enplegu-programan parte hartu duten ikasleak, programa amaitu duten ikasleak, programa utzi dutenen kopurua eta kausak, programa amaitu ondoren lortutako laneratzea eta interesgarritzat jotako beste datu batzuk.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 21a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.